

Imanol eta
Xabier Azkue

Zumaiatik Debarako harraldean



GERO eta jende gehiago dabil Zumaia eta Deba artean oinez, hainbat arrazoiengatik: ibilbide erraza delako, ondo markatuta dagoelako, liburuetan eta aldizkarietan jasotzen delako, mendi-elkarteek txangoak antolatzen dituztelako... baina, batez ere, ibilbideak bista ikusgarriak dauzkalako itsasoaren eta lehorraren gainean. Bada, ordea, beste bide bat Zumaia eta Deba artean, ez hain ezaguna eta are gutxiago markatua, askoz ere zuzenagoa, askoz ere lauagoa: harraldetik¹, itsasoaren olatuen gain-gainetik doana.

Haitzen gainetik doan ibilbide honetan, hain ospetsua egin den flyscha ezagutuko dugu, liburu geologiko irekia ere deitua. Baina inguru honetako giza istorioekin ere liburu polita egin daiteke eta horietako batzuk azalduko zaizkigu hemen: olagarroaren arrantza, adokinerokoak, kontrabandoa, hondoratzeak... Haitz hauek hitz egingo balute... balute...



Imanol eta Xabier Azkue Ibarbia (Zumaia, 1965 eta 1971). Gehienbat euskararekin lotutako lanetan arituak dira: itzultzaile, irakasle, euskarategnikari... Gaur egun Elhuyar Aholkularitzan dabil Imanol eta Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuan Xabier. Herriko Baleike aldizkarian parte hartzen dute, biek maite dute idaztea eta sari batzuk ere lortuak dituzte; Imanolek ipuinak idatzi izan ditu batez ere, Xabierrek bertso paperak gehiago. Azken urteotan Zumaiako leku-izenak ikertzen aritu izan dira; 2007an mapa toponimikoa aurkeztu zuten eta 2008an dibulgazio-liburu bat (*Zumaia, izena eta izana*). Mendizaleak ere badira; Imanol eskalatzan ibilia da (ikus baleike.com/blogak/gortu), eta Xabier martxa luzeetan eta mendi-lasterketetan.

Ibilbide hau egiteko, **kontuan izan...**

- **Mareajea.** Ia nahitaezkoa da itsasbehera, edo komenigarria bai, behintzat, orduan agertuko zaigulako marearteko zabalgunea bere handitasun eta edertasun osoan.
- **Itsasgorak harrapatuz gero,** askotan posible izango dugu goialdera –lehorraldera– irtetea, bai jaiskuneetatik², baita beste bide markatuago batzuetatik ere (adibidez, Baratzazaraurretik Elorriagako atsedenekura, Sakonetaurretik Sakonetara edo Errotaberrira...). Erne ibili, hala ere, izan da-eta Ertzantzaren helikopteroak atera duenik ere...
- **Ordutegia.** 3-4 ordu beharko ditugu, betiere zenbat geratzen garen inguruei edo bazterrei begira. Eta benetan, badago zer ikusia, bai lehorrean, bai haitzean.
- **Noranzkoa.** Bi aldeetara berdin egin daiteke, eta bietan badago buelta trenez egitea. Orduro daude trenak Zumaia eta Deba artean.
- **Zailtasuna.** Ez da ibilbide teknikoa edo bereziki arriskutsua, baina haitzen gainean ibiltzeak baditu bere arriskuak, batik bat orekari etengabe eutsi beharrak edo haitzen gaina labainkor egoteak.
- **Oinetakoak.** Egokiak beharko ditugu, zenbateraino busti nahi dugun putzuetan (botak, uretarako oinetakoak...).
- **Eguraldia.** Onarekin hobeto, baina txarrekin egitea ere merezi du, batez ere eguraldi onarekin ur-jario txikiak direnak, euria egin ondoren erreka handi bihurtzen direlako, itsaslabarretatik behera saltoka amiltzen direnak.
- **Ez utzi arrastorik.** Bestela ere guk botatako nahikoa zikinkeria ekartzen digu itsasoak.

Zumaia abiapuntu, erraz iritsiko gara Algorrira. Horretarako, gutxienez bi bide dauzkagu aukeran: bata, Itzurun hondartzatik eta San Telmo ermitaren ondotik doana. Algorriko bizkar gainetik doa (Gipuzkoari bira ematen dion GR 121, marka zuri-gorri jarraiki) eta, horrela, itsasoa nola dagoen ere ikusi ahal izango dugu. Bestea, parrokiaren oinetatik abiatzen dena dugu, Ardantzabidetik Ardantza baserrietara, eta handik zuzen Algorrira. Ez dago galbiderik. Haitzetara jaitsi aurretik, merezi du Algorri gainetik ibilbideari begiratzea, bere osotasunean agertuko baitaigu marearteko zabalgunea, harrizko ordeka handia. Eta ekialderako bista ere ikusgarria da, Itzurun hondartza aldera.

Algorrin berehala konturatuko gara leku-izenaren zergatiak: harrigorria edo biluzia dago agerian, ia landaretzarik gabekoa. Eskailera

¹ **Harralde:** itsasoaren eta lehorraren arteko eremua, mareajearen arabera handiagoa edo txikiagoa izan daitekeena.

² **Jaiskune:** menditik haitzera jaisteko leku malkartsu eta pikoa. Askotan lagungarriak ere izaten dituzte: sokak, mailak...



Argazkiak: Javier Carballo



■ Ezkerraldean, Elorriagatik bidea dator, Baratzazaraurrea, Zumaia eta Itziar-Deba arteko mugara. Goialdean, Arantzako portua eta Sakoneta inguru

piko batzuk daude beheara jaisteko, eta hondartzatxo bat ere bai, gehienetan. Garai batean, inguru hau hain ezaguna ez zenean, hauxe zen zumaiar askoren "hirugarren hondartza"; Itzurun eta Santiago baino askoz ere bakeosoagoa, lasaiagoa.

Ezkerraldera hartuta, segidan hiru paso³ iragan beharko ditugu, beste hainbeste brankadaren⁴ gainetik. Ezkerraldeko labarretan, ondo begiratu gero, fosilak aurkituko ditugu, eta arrasto nabarmenak daude labarra nola ari den etengabe erortzen. Hirugarren pasoa gaingiduta, Andikaraerreka agertuko zaigu, salto ederrean. Hortik aurrera harribiribilen⁵ sail galanta zabaltzen da Baratzazaraurre ingururaino, itsaslabar bertikal ikusgarrien azpian. Biderik ez dago eta geuk aukeratuko dugu nondik hartu: goialdetik, itsaslabarren behealdetik, eta itsasoak ekarritako hondakinek argi erakutsiko digute olatuak noraino iristen diren; edo beheargotik, harribiribilen eremu zurixkatik; edo zabalguneko putzuetatik barrena, haitzetatik, hango animaliak eta ikusteko. Gora, itsaslabarretara begiratu, jaiskune bat baino gehiago ikusiko dugu, soka eta guzti, eta baserriak harraldetik egurrak garraiatzeko erabiltzen zuten kablea ere bai, Oristerreka itsasoratzen den inguruan, Pikote baserriaren parean.

Baratzazaraurre parera iritsi baino lehentxeago dago Palankamugarri, Zumaia eta Debaren arteko muga, garai batean burdinazko palanka baten bidez adierazia, eta hortik gora doa

³ Paso: haitz-geruzaren gainetik pasabidea. Normalean, eskuak ere erabili behar izaten dira.

⁴ Brankada: harraldeko haitz-estrato zuzena, itsasaldera barneratzen dena.

⁵ Harribiribilak: olatuak eta mareajeak itsasertzeko harriak gora eta beheara piritika mugiarazten dituzte eta pixkanaka itxura biribila hartzen dute. Sail handiak osatzen dituzte, gehienetan harri zurizkoak (kareharria delako).

■ Sakonetako puntako brankada itsasoan barneratzen da

Elorriagako atsedeenlekura igotzeko bidea. Aukera polita eta erraza da mendiz atzera Zumaia iratzeko. Baina guk harraldetik jarraituko dugu, haitzetatik, eta segidan datoz Peungo zuloa, Aizbeltz, Arantzazpia eta Liñapotzueta. Arantzako portua igarota, Sakonetaurrera iritsiko gara. Hortik, aukera izango dugu berriz ere lehorrera irteteko: Elorriaga aldera Arantza baseritik, Errotaberri baserri-tabernara, Sakoneta baseritik Itziar aldera, GR bidera Debara jarraitzeko... Sakoneta inguru honetan, XX. mendearren erdialdean, guardia zibilen kuartela ere egon zen, kontrabandoa zaintzeko.

Hor daukagu, beraz, lehorrera irteteko aukera, baina merezi du harraldetik jarraitzea. Aizkaitoren azpialdetik pasatuta, Sakonetako hondartzaren aurrealdera iritsiko gara, eguzkia larrugorritan hartu nahi dutenentzako txokora, eta hortik Mendatoko puntara. Inguru honetan, nahitaez gogoratu behar 1970eko amaiera aldera zentral nuklearra eraiki nahi izan zutela, Lemoizkoaren garai berean. Eta Iberduerok lurak erosi ere egin zituen horretarako, zorionez alferrik.

Mendatoko puntan, itsasbehera nola den edo bustitzea axola zaigun edo ez, erabaki egin beharko dugu, hainbat aukera daukagu eta:

- Lehen aukera harraldetik jarraitzea da eta Aitzuri azpialdeko haitzuloetan bustita pasatzea. Baina horretarako itsasbehera handi samarra beharko dugu, baita itsasoa bare egotea ere.
- Bigarren aukera Mendatoko jaiskunetik igotzea da, sokatik. Eta errearen ondotik, eskuinaldetik, goialdean irtenda, lehengo trenbidearen tunelean sarturik, Aitzuriren beste aldera zeharkatzea. Berez, debekatuta dago pasabidea, eta ondoko pistatik egitea badaukagu gora eta beheara. Baina bide

nekoso hau izugarri laburtzen digu tunelak. Nolanahi ere, Aitzuriren beste aldean eta trenbide zaharraren gainetik, berehala ikusiko dugu eskuinaldetik bidexka bat doala berriz ere harraldera.

- Nekatuta baldin bagaude eta harraldean ibiltzeaz aseta, beste aukera bat da trenbide izandakotik aurrera jarraitzea, Arroamendiko araztegiara, ordekan-ordekan, eta handik Debara (GRaren marra zuri-gorriari jarraituta), Santa Katalina ermitara igota edo zuzenean Itziartik datorren errepidean behera.
- Nondik joan erabaki baino lehen, ordea, Mendatako puntan ondo gozatuko dugu Mendatako errekararen ikuskizuna, salto ikusgarrian jaisten baita haitzetara.

Aitzuri azpiko harraldera jaitsita, ibilbide erraz eta zuzen samarra daukagu haitzen gainetik, Debara iritsi aurreko Aitzandi bitartean. Bidean, formazio geologiko berezi eta ikusgarriak aurkituko ditugu, oso bitxiak. Halaber, garai bateko (XIX-XX. mendeetako) jarduera baten arrastoak ere ikusiko ditugu: inguru honetan, batez ere Arroamendi parean, harrobiak zeuden itsaslabarrean, herrietako galtzadetakako harria ateratzeko. Ehundik gora langile ere izan zituzten. Adokinak egiteko, lehenik, harri-blokeak eraisten zituzten dinamitarekin. Harriek forma karratua eman ondoren, itsasontziz edo trenez ateratzen zituzten. Itsasoz ateratzeko, gabarra harraldera hurreratzen zen eta horregatik dira haitzeko paraje batzuk gabarlekukak⁶, adibidez, Usarragaundikoa eta Txertudikoa. Gabarretatik harriak itsasontzietara (balandroetara edo beste batzuetara) igotzen zituzten. Era berean, bestelako itsasontziak ere hurreratu izan dira harralde honetara, beste "lan" batzuetarako, gehienetan kontrabandorako.

Harraldean aurrera eginda, Arroamendi parean, Sanjuanerrek dator araztegitik. Gainetik pasatuta, haitzez haitz erraz iritsiko gara Aitzandira. Hortik, Deba bistan dugula, Lapari hondartzara arribatuko gara lehenengo, eta Debako hondartza handira gero. Hondar bigunetan ibiltzea arraroa ere egingo zaigu, seguru, hainbeste haitz gogorren gainean ibili eta gero...



■ Aitzuriren gainaldetik (Mendatagainetik), harraldearen ikuspegi zoragarria dago Zumaia aldera begiratuta. Behealdean, Mendatako kala

■ Klaudio Etxabe, Pikote baserrikoa, lehortzen jarritako olagarro batzuekin. Inguruko baserriarrek joera handia daukate haitzerako



AUKERA SAMURRAGO BATZUK

Debatik Zumaiarako ohiko bidea ezaguna da, marra zuri-gorriek erakusten dutena. Osorik egiteko astirik edo gogorik ez duenarentzat, hona hemen hiru txoko eder ezagutzeko aukera, lehenbiziko biak autoan gerturatuta eta hirugarrena Zumaian bertan oinez:

- 1 **Elorriaga:** Zumaiaik Debarako errepidean, Zumaiaitik itenda eta Arroabea igarota, Itziarrerako aldapan aurrera eginda dago Elorriagarako bidegurutzea. Eskuinaldera hartuta, bi kilometrora, ermita eta baserriak atzean utzi, eta atsedenleku bateraino joan gaitzke autoan (errepidea amaitu egiten da, ez dago aurrera jarraitzerik). Handik, pista bat iriteta da behealdera, itsas aldera. Berehala balkoi moduko batetik itsasertzen ikuspegi ederra izango dugu. Baratzarretatik behera sigi-sagan jaisten den bidea uste baino luzeagoa da, eta akordatu gero igo egin beharko dela (bota ordubete joan-etorria).
- 2 **Sakoneta inguru:** Elorriagako bidegurutzea igarota eta Itziar aldera jarraituta, kilometro batera-edo badago beste bidegurutze bat eskuinaldera, bihurgune baten erdian. Beherantz hartu behar da, aldapa piko batean, eta Errotaberri baserri-jatetxera ailegatutakoa, autoa bertan utzi. Hortik abiatuta, gutxi gorabehera 15 minutuko bidea dago haitzetara, marka zuri-horiz adierazia, betiere Errotaberriko errekararen ondo-ondotik. Kala txiki bat dago han bertan, Sakonetaurrea izenekoa, eta hondartza ezkutu bat ere bai gertu, Deba aldera. Inguru ederra eta lasaia da oso, eta fosilak ere aurkituko ditugu ondo begiratuz gero.
- 3 **Algorri-ltzurun:** Zumaiaik irten gabe, paseo ederra da Algorrirako joan-etorria. Parrokiaren oinetatik joan Ardantza aldera, Ardantzabidetik, eta erraz ailegatuko gara Algorrira. Han, eskuinaldeko aldapa igo eta Algorriko bizkar gainera helduta (kontuz ibili itsas alderako amildegiarekin), segi bidexkatik San Telmo ermitara. Ondoko etxeen artetik pasa labarren gaineko zelaietara, eta hotelaren ondotik, jaitsi Itzurun hondartzara. Indartsu dagoenak eta ikuspegi zabalagoa nahi duenak Talaimendi begiratoki ederra du aukeran, eskuin aldeko bidexka pikoan gora.

■ Algorriko puntatik begiratuta, harraldea ageri zaigu Deba aldera, oso-osorik. Urtaroaren arabera, haitzen gainaldeko kolorea ere aldatu egiten da



⁶ **Gabarlekua:** gabarra lotzeko tokia, harrobiak adokinak ontziratzeke.

Haitzean arrantzan, olagarrotan

Inguruetako baserriar eta kaletarrek joera handia daukate haitzerako, itsasbeheran harraldean arrantza egiteko: itsas trikuak (Zumaian *ostarrenak*), nekorak (*andarrikak*), txangurroak, txangarrak (*txoazkiñak*), izkirak, magurioak (*mauliyuak*), lapak, kabrarrokak (*gomexak*), lupiak, sarboak eta, batez ere, olagarroak (Zumaian *olarruak*).

Olagarrozaleek bereziki estimatzen dute Zumaia eta Deba arteko harralde hau eta arrantzarako horien erreminta nagusia *kakoa* da: altzairuzko haga luzea, metro eta erdi ingurukoa. Mutur batean heldulekua jartzen zaio, kirtena, eta beste muturra okerra izaten du, amu baten itxuran. Olagarroa zuloetan edo haitzen azpian babesten da, baina *markak* uzten ditu bere gordelekuaren kanpoaldean: ezkutalekua egiteko ateratako harri txikiak edo hondarra, jan dituen animalien oskol edo maskorak... Olagarrozaleek kakoa zuloan sartzen dute, eta mugituta, berehala dakite olagarrorik dagoen ala ez. Eta dagoenean, kakoarekin kateatuta, kanpora ateratzen dute.

Gaur egun, hozkailuak dauzkagun honetan, olagarroa irauarazteko ohikoena eta errazena izoztea izaten da, eta jan behar denean ateratzea. Baina garai batean lehortu egiten zen irauarazteko: olagarroa garbituta, lehenengo usteltzen utzi eta gero lehortzen jarri. Lehortu denean, ur guztia galduta, olagarroa izugarri urritzen da, freskoarekin alderatuta bosten bat geratzen da. Gastronomiari dagokionez, Zumaian bereziki estimatuak dira olagarro-zopa eta olagarroa patatekin, eta irailean Olagarro Eguna ospatzen da.

Algorri babes-izendapenak

Algorrik, berak bakarrik, merezi du bisita, oso paraje ederra eta ikusgarria delako eta ahalegin handirik gabe iristea dagoelako Zumaiaiko herrigunetik. Izen hori hartzen dute lurmuturrak, hondartzatxoak eta, oro har, inguru osoak. Azkenaldian gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, batez ere geologoentzat, Algorrin leku gutxitan bezala ikusten delako Kretazeoaren eta Tertiarioaren arteko muga, "K/T" muga ospetsua. Muga hori duela 65 milioi urtekoa da, eta dinosauroen desagertzearekin erlazionatuta dago. Izan ere, teoria onartuenaren arabera, asteroide bat erori zen Lurrera, Mexikoko Yucatanen, eta talkaren ondorioz, atmosferara iridioa erruz askatu zen. Denborarekin lur azalean pausatuz joan zen iridio horren geruza da, hain zuzen ere, Algorrin hain ondo ikus daitekeena. Horren arrastoak Sopelan eta Hendaian ere ikus daitezke.

Algorritik oso gertu, Itzurun hondartzan, Santelmopea izenekoan, Paleozenoaren eta Eozenoaren arteko muga (P/E muga) ere badago ikusgai, K/T muga baino berriagoa, duela 54-55 milioi urtekoa.



Argazkiak: Javier Carballo

Zalantzarik ez dago: natura aldetik balio izugarria du inguruak, eta hura babesteko premiak izen dantza handia ekarri du azken urteotan. 70eko hamarkadan Mendata inguruan zentral nuklearra jartzea aztertzen aritu ziren, aurrerago **parke natural** izango zela zirudien, eta azkenean **biotopo babestua** izendatu zuten iaz. Saltsa pixka bat egon da (eta dago) oraindik ere kontu horrekin, batez ere ehiztarien eta arrantzale batzuen artean, izendapenarekin berauen jarduerak ere arautu eta mugatu egin direlako. Adibidez, 2009an egin zen mendi-lasterketa bat inguru horretan (<http://www.zumaiaflyschtrail.com>), eta neurri bereziak hartu behar izan zituzten ingurunea ez kaltetzeko.

Flyscha eta bestelako izenak

Flyscha, ez da Zumaiaiko berezitasun bat, askoz ere fenomeno orokorragoa da, eta munduko beste hainbat lekutan ere aurki daiteke. Jatorriz hitza suitzarra-alemaniarra da, Alpeetan deskribatu zirelako lehen aldiz horrelako arroak. Berez, itsas hondoa sedimentazioz sortutako arroka-mota da. Horrela, flyschean material sedimentario gogorak eta bigunak txandakatzen dira, hau da, gogortasun desberdineko geruzak osatuta dago. Horrek hostopil-itxura ematen dio parajeari.

Duela 30 urte haitzak hor zeuden, duela 30 milioi urte ere bai, eta pena litzateke gure aurreko belaunaldiak erabili dituzten izen bereziak galtzea. Haitzak duen garrantziaren erakusgarri dira leku-izen asko (Aitzabal, Aitzuri, Aizbeltz, Aizkaizto, Aitzandi...) eta harria ere behin baino gehiagotan ageri da izenetan: Algorri, harralde... Orain badirudi Flysch izena aipatu gabe ezinezkoa dela inguruaz hitz egitea. Azken 200 urteotan inguru horretan ibili diren baserriar eta arrantzaleek ederki asmatu zuten, bada! Filmak, interpretazio zentroak, liburuak... denak ere primeran datozkigu kanpotarrei geurea zer den azaltzeko, baina ez ditzagun ahaztu beste istorioak, izenek, zumaierren lekukotzek eta garai bateko jardueren arrastoek azaltzen dizkigutenak. □

Gehiago sakontzeko:

- Algorri Interpretazio Zentroa, Zumaian (<http://www.algorri.eu>)
- *Flysch, haitzen hitza* filma (<http://www.flyschzumaia.com>)
- *Flysch Algorri Mendata, Denboran zehar bidaiatuz*, Javier Carballo eta Asier Hilario, Gipuzkoako Foru Aldundia, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentua, 2010.
- *Baleike* herri-aldizkari hainbat artikulu eta ibilbide (<http://baleike.com>). Hor bertako blog batean Debatik Zumaierako ibilbidea (<http://baleike.com/blogak/ateki/>).
- *121 amu kostaldea ezagutzeko*, Gorka Zabaleta, Berria, 2008
- *Flysch, la mirada devuelta*, Kepa Murua (poesia) eta José María Álvarez Fernández (argazkiak), Bassarai, 2006.
- *Deba-Zumaiaiko labarrak, Harrizko liburua* (unitate didaktikoak), Naturgaia, S.L. <http://www.naturgaia.net/eima/deba-zumaia/>
- *Zumaia, izena eta izan*, Imanol Azkue, Zumaiaiko Udala, 2008.

ALGORRI, HARRI GORRIZKO LIBURU

Xabier Azkue Ibarbia

Doinua: *Itsasoari begira (Benito Lertxundi)*

-1-
Oso dotore zaude Algorri
itsasorantz eseria
ermitatxo bat erdi zintzilik
ondoan amildegia
munduan bertan goza daitekeen
paradisua ageria
hain da ederra zeruertzera
daukazu ikuspegia
gezurrezkoa ematen duen
urrezko itsas hegia

-2-
Mendi ertzean erdi etzanda
dauzkazu itsaslabarrak
paraleloan metatzen diren
historiaurreko marrik
aro gogorren ondoriozko
itsasoaren negarrak
azpi aldetik laztantzen zaitu
olatuaren aparrak
zilar distirak oskorritzean
udako ilunabarrak

-3-
Historiako ikasgai eta
geologoen helburu
joanak dira hirurogeita
bost milioi urte inguru
iridizko irudietan
KT muga zagan dugu
dinosaurioen azken agurrak
geruzetan hor ditugu
zu zarelako gure herriko
harri gorritzko liburu